

## **UPV/EHUko MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEAREN BATZARRERAKO 2021eko HAUSTEKUNDEETARAKO ESKULIBURUAREN 3. FASEA**

### **BOTOA ALDEZ AURRETIK EMATEA**

- a) Noiz ematen da alde zurretiko botoa?**
- b) Nola ematen da alde zurretiko botoa?**

### **BOZKETA**

- a) Hauteskunde mahaiak eratzea**
- b) Bozkatzeko ordutegia**
- c) Hauteskunde egunaren bilakaera**

### **BOTO ZENBAKETA**

- a) Botoen zenbaketa**
- b) Boto zenbaketaren akta formalizatzea**
- c) Emaitzak argitaratzea**
- d) Boto paperak suntsitzea**

### **BOTOA ALDEZ AURRETIK EMATEA**

- a) Noiz ematen da alde zurretiko botoa?**

Otsailaren 1etik, astelehena, otsailaren 4ra, osteguna (biak barne); edozer dela eta, otsailaren 9an (bozketaren eguna) hauteskunde barrutian egoteko aukerarik ez duen edonork eman dezake alde zurretiko botoa.

Botoa alde zurretik emateak ikasleak irakaskuntza jasotzen duen ikastegi, atal edo irakasgunean bozkatzeko eskubideaz baliatzea ahalbidetzen du.

Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorrak ezartzen du alde zurretiko botoa ikastegietako zuzendaritzen aurrean emango dela; hortaz, ikastegietako idazkari akademikoek edo horien ordezkoez jasoko dituzte alde zurretiko botoak, idazkaritzen jendaurreko ordutegian. Ikastegiek ordutegi horren berri emango dute.

## **b) Nola ematen da alde zurretiko botoa?**

Alde zurretiko botoak emateko, boto paper eta gutunazal ofizial itxiak erabiliko dira. **Gutunazal itxi hori eta indarrean den NANaren, pasaportearen, gidatzeko baimenaren edo UPV/EHUko txartelaren fotokopia bat** beste gutunazal batean sartuko dira, eta dagokion hauteskunde barrutiaren mahaiburuari zuzenduko zaio. Gutunazalaren kanpoaldean, botoa ematen duen pertsonaren izen-abizenak eta haren hauteskunde sektorea adierazi beharko dira, eta hautesleak hegalean sinatu, eta gutunazala zinta itsasgarriarekin itxiko du. Boto emaileek eskatuz gero, botoa alde zurretik eman izanaren agiri bat emango zaie, erantsitako ereduaren arabera.

Alde zurretiko botoak dagokien hauteskunde mahaiaren arabera sailkatuko dira; hartara, hauteskunde mahaiko buruari emango zaizkio bozkatzeko egunean bertan.

Bozketa amaitzean, horrela emandako botoak hautestontzian sartuko dira, erroldan izena emanda daudela egiaztatu ondoren. Boto horietako bat dagoeneko pertsonalki bozkatu duen edo hautesle izateari utzi dion norbaitena bada, alde zurretiko botoak balioa galduko du, eta ez da hautestontzian sartuko.

Hautesleak berak eman beharko du alde zurretiko botoa.

## **BOZKETA**

### **a) Hauteskunde mahaiak eratzea**

Ikastegietako hauteskunde batzordeek bozketa egunean hauteskunde mahaietan egongo diren pertsonak aukeratuko dituzte, zozketa bidez.

Bozketa hasi baino ordu erdi lehenago (hau da, 08:30ean), hauteskunde mahaia eratu eta **eraketa akta** bete behar da, igorritako ereduaren arabera. Eraketaren unean, titularrek eta ordezkoez egon behar dute, mahaiaren egoteko erregimena adosteko.

Halere, mahaikideek (bai titularrak bai ordezkoak) mahaiaren egoteko erregimen hori alde zurretik adostu badute eta mahaiaren eraketan mahaiburu bat eta bi mahaikide egongo direla ziurtatzen bada, ez da beharrezkoa izango guztiak 8:30ean bertaratzea; hortaz, nahikoa izango da goizeko txandan egongo diren pertsonen mahaia eratzea.

Gogoratu, ikasleentzako kreditu erdia eskatu ahal izateko, mahaiaren egun osoan egon izana egiaztatu behar dela. Egund osoan parte hartzen ez duten ikasleei ziurtagiri bat bakarrik emango zaie, non hauteskunde mahaiaren igarotako orduen kopuru zehazta adieraziko baita.

Hauteskunde mahai bakoitzak bozketa kabina edo espazio erresebatu bat egokitu beharko du, boto sekretua bermatzeko. Bertan, boto emaileek hautagaitza guztien boto paperak eta gutunazalak izango dituzte eskura. Mahaikideek noizean behin egiaztatuko dute kabinaren barruan hautagaitza guztien boto paperak daudela.

Boto paper guztiak bozketarako gutunazaletan sartu beharko dira.

### **b) Bozkatzeko ordutegia**

Hauteskunde mahaiak goizeko 9:00etan irekiko dira, eta mahai bakoitzean bozkatu dezaketen pertsonen zerrendak eskura izango dira. Mahaiak 9:00etatik 17:00etara egongo dira irekita.

Eskola batetik bestera 10 minutuko tarreak (eskola bakoitzari 10 minutu kenduta) utziko dira otsailaren 9an, boto eskubidea erabili ahal izateko.

### **c) Hauteskunde egunaren bilakaera**

Bozketa hastean, mahaiburuak hautesle bakoitzaren nortasuna eta hauteskunde erroldan sartuta dagoela egiaztatuko du.

Hautesleek bozkatzeko unean beren nortasuna egiaztatuko dute, UPV/EHUko kide izatearen txartela, NANA, pasaporte edo gida baimena erakutsita.

Mahaikide batek erroldak markatuko ditu, eta beste batek boto emailearen izena idatziko du zerrenda zenbakitu batean; hartara, boto zenbaketa egiteko unean boto emaileen kopuru osoaren inguruko zalantzaren bat sortuz gero, bitarteko egokiak edukiko dira egiaztapenak egiteko.

Boto emaileak, mahaian dagokion erroldan sartuta dagoela eta haren nortasuna egiaztatu ondoren, boto papera emango dio (horretarako banatuko diren gutunazaletan) dagokion mahaiburuari edo mahaikideari, eta hark hautestontzian sartuko du.

Boto papera daraman gutunazala soilik mahaiburuak edo mahaikideak sar dezake hautestontzian.

Txanda aldaketa egitea adosten denean, goizeko txandan egon diren pertsonak eta arratsaldeko txandan egongo direnak saioaren garapenari buruzko akta betetzen hasiko dira. Une horretan, goizeko txandan egon diren pertsonak bozkatzeko aukera izango dute.

Bozketa amaitzeko finkatutako orduan (17:00etan), mahaiburuak ahots goraz iragarriko du bozketa amaitzera doala eta ez dio inor gehiagori utziko lokalean sartzen. Halere, barruan direnei bozkatzeko aukera emango zaie, oraindik egin ez badute. Jarraian, aldez aurretiko botoak hautestontzian sartuko dira, eta arratsaldeko txandan egondako mahaikideek bozkatuko dute.

Une horretan, mahaikideek egunean izandako gorabeherak jasotzeko saioaren **garapenari buruzko aktaren** zatia beteko dute. Ezer jasotzen ez bada, eguna normaltasunez joan dela ulertuko da. Akta horretan jaso daitezke, halaber, mahaikideek esanguratsutzat jotzen dituzten gertaerak.

## ZENBAKETA

Behin bozketa amaituta, boto zenbaketa jendaurrean egingo da. Boto zenbaketa amaitzean, mahaia aurkeztutako erreklamazioen gainean erabakiko du.

**BOTO ZENBAKETA MAHAIKIDEEK BAKARRIK EGIN BEHAR DUTE, ETA HAUTESTONTZIA ETA BOTO PAPERAK EZIN DIRA BESTE INOREN ESKU UTZI.**

### a) Boto zenbaketa

Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorren 8. artikulua honela dio:

**Boto baliogabeak** izango dira:

- a) Boto paper ez ofizialetan emandako botoak edo oharren bat duten txarteletan edo izenen bat ezabatuta edo aldatuta dutenak.
- b) Hautagai zerrenda bat baino gehiago adierazita dutenak (zerrenda bat baino gehiago daukaten boto paperak direnean); gutunazalean boto paper desberdinak sartuta dituztenak, edo, gutunazala nahitaezkoa izanda gutunazal gabe ontzian sartutakoak.
- c) Gutunazal ez ofizialetan emandako botoak edo gorabeheraren bat dutenak edo boto paper ez ofizialak dituzten gutunazalakoak.

**Boto zuriak** izango dira:

- a) Boto paper ofiziala zuriz daukatenak.
- b) Hautagai zerrendarik aukeratuta ez dutenak (zerrenda bat baino gehiago daukaten boto paperak direnean).
- c) Boto paperik ez duten gutunazalak.

### b) Boto zenbaketaren akta formalizatzea

Boto zenbaketa amaitu, eta erreklamazioen gainean erabaki ondoren, emaitzak **boto zenbaketaren aktan** jasoko dira, emandako ereduaren arabera, eta arratsaldeko txandako mahaikide guztiek sinatu beharko dute.

Aktan, hautesleen eta boto emaileen, boto paper baliogabeen –halakorik bada– eta boto paper baliodunen kopurua zehaztuko da, eta azken horien artean, boto zuriak eta hautagaitza bakoitzak lortutakoak bereiziko dira. Era berean, erreklamazioak, akordioak eta gorabeherak adieraziko dira, halakorik balego.

### **c) Emaitzak argitaratzea**

Mahaiek, aktak sinatu eta berehala, emaitzak argitaratuko dituzte, fakultateko iragarki oholetan jarriko diren fotokopien bidez. Hurrengo egunean, behin-behineko emaitzen aldarrikapen ofiziala egingo da, eta iragarki oholetan eta webgunean argitaratuko dira.

Hauteskunde Batzordeak erabaki beharreko inpugnazioen epea amaitzean, emaitzen behin betiko aldarrikapena egingo da, 2021eko otsailaren 15ean, eta dagokion moduan argitaratuko dira iragarki oholetan eta webgunean.

### **d) Boto paperak suntsitzea**

Emaitzen behin betiko aldarrikapenaren ondoren, hautestontzietatik ateratako boto paperak suntsituko dira, ingurumenerako jasagarriak diren prozeduren bidez, non eta ez den erreklamazioen bat jarri.